

BIZKAIERAZKO IRAKASKUNTZA

EDO ETENGABEKO NEGARRA

Zergaitik ete da bizkaieraren aide gabilzanok beti negarrez ibili bearra? Zergaitik egon bear beti erregutzen, eskatzen, mesedea? Sarritan telebistako emonaldietan agertzen diran Afrika urruneko baltz koitaduen antza daukagula uste izaten dot: begi andi-andiak eta zabalzabalik ogi zatiren bat noiz jausiko itxaroten.

Baina guri ogi zati on ez jaku inoiz eltzen. Eta zergaitik? Zer gertatzen da? Ez dakigu eskatzen ala ez dogu gar edo kemen naikorik jartzen eskatzeko orduan? Berba gozoz eskatu bearrean maai gainean ukabilkadaren bat emonda eskatu bear? Baleiteke orixe izatea!

Aspaldion kekkak anditu egin dira bizkaieraz irakasten daben ikastolen artean. Orain arte geienak, sikeran Oinarritzko Ezkuntza emoteko, liburuz ornituta egon dira IBAIZABAL argitaletxearen liburuz. Ezkuntza orrek ikasleek 14 urte bete artekoa artzen izan dau eta ikastola batzuk denpora guzti orretan euren ikasketak bizkaieraz emoten izan dabez. Baina aurtan Derrigorrezko Bigarren Ezkuntza asiko da, beronek aldaketa sakonak dakarzelarik, bai irakasteko eran, zein testo liburuetan, baita ikastolen eta eskolen antolamenduan.

Oraindino bizi-bizirik dagoz "Mapa Eskolar" deritxon orrek sortu dauazan eztabaida eta goraberak. "Mapa" on dala eta ikastetxe orretariko batzuk ez dabe Derrigorrezko Bigarren Ezkuntza emongo. Ikastetxe orreetan umeak 12 urte bete arte egongo dira, gero "Instituto" etara joango direlarik. Eta orrek zer dakarren? Ba, Derrigorrezko Leenengo Ezkuntza emoten daben ikastetxeak beste orreen menpe geratzea, eurak diralako ezkuntzaren norabidea jarriko dabenak. Orduan baten baino sarriagotan gertatuko da, gero ere ikasleen ezkuntzak jarraipen bat euki daian, txikien eskoleak Institutoaren izkuntz eredua artu bearko dau.

Bota daigun IKASTXIKI ikastoleak orain arte 14 urtera arteko ikasketak emoten izan dauazala, eta bizkaieraz gainera. Baina emendik aurrera legeak orrela aginduta edo antolamendu aldetik ezin daualako Derrigorrezko Leenengo Ezkuntza baino ez dau emongo, an da 12 urtera artekoa, gero bere umeak NAGUSIKAS institutora joango direlarik, orrela egin dabe ituna eta.

Kontutan izan itun orreek baldintzatuta egoten direla (urbiltasuna, inguruko ikastetxeen kopurua...) eta bidea jartzen dauana goi mailako ikasketak emoten dauazan ikastetxea dala. Kasurik geienetan gertatzen danez NAGUSIKAS ikastetxeak bere ikasketak batuaz emoten dauazanez, IKASTXIKI ikastolak geroa ziurtatzeko ere, orrela emon bearko dauz. Eta au ez da "ciencia ficcion" deritxen eleberri bat, gertatu egingo dan benetako zera baino.

Gauzak oraindiko larriago gura dozuz ikusi? Ba oraintxe jarriko deusdaz. Erreforma deitzen deuten onegaz batera, gorago aipatu dodanez, aldaketa sakonak datoz metodologia, ikasketa eta abarretan, beraz langai, lanabes eta lan tresna barriak bear dira. Eta ortxe dago koxka: bizkaieraz emoteko aukera egin dabenak, 12 urtetatik gora klaseak emoteko lan tresna barik geratu dira, beintzat datorren ikasturteari begira. Beste era batera esanda, ez dago bizkaieraz irakasteko libururik Derrigorrezko Bigarren Ezkuntzarako.

Orain arte liburuz ornitzen izan dauazan IBAIZABAL argitaletxeak testu bi baino ez dauaz atarako bizkaieraz: euskerakoa eta erlijioakoa. Eta beste guztiak? Batuaz jaina!, ez dago Matematika, Natura edo Gizarte bizkaieraz ikasterik! Badirudi azpitik arrazoi ekonomikoak dagozala, liburu bat argitaratzeko eta errentagarria izan daiten ale kopuru baten salmenta ziurtatua euki bear da eta.

Oraindik gauzak kilin-kolon dagozanez, bearbada argitaletxea ez da ausartu beste libururik ataratzen eta emendik urte batera egoera barriro aztertu ondoren eskeintza osoa ataratzen dau: edo, zeinek daki, daukazan ere kendu!

Ze urtenbide dago orduan? Ba leen esan dodana: batuerazko liburuak artu. Edo bizkaieraz irakatsi eta batuaz ikasi, beronek dakarrezan kaka-naaste guztiekaz. Edo bestela antzinako denporetara biurtu: nork berak eta aal dauan moduan zer edo a atara. Patxikoren denporarik onenetara biurtuko bearko ete gara? Etorkizun penagarria bizkaieraz irakasten daben ikastolentzat.

Zer egin? "negarren orma"-ra aieneka joan? Edo maai gainean ukabilkadea emon? Eta zeinen maairen gainean emon? Zeinengana joan erreguka eta mesedeak eskatzen? Arrazoi ekonomikoak nagusitzen diranean badirudi orreen kontra ezer egiterik ez dala egoten, negarra eta zotina izan ezik. Leen ere arrazoi naikorik egon bada gure euskalkia ikastolatan irakasteko, zeuk esango deustazu, irakurle, zelanko etorkizuna ikusten dozun orain onegaz.

Alan eta guztiz ere baikorra izan gura dot eta egoera onek urte bat baino ez dauala iraungo pentsatu, urrango ikasturterako IBAIZABAL argitaletxeak, edo beronek ez bada besteren batek, edo bizkaieraz irakasten daben ikastolen artean, urtenbideren bat aurkituko dabela, gauzak here onera biurtuz. Aurreko baten esan nebenez, galdu ere, leenago galtzen da bizia itxaropena baino.

ENRIKE ITXASALDE